



Ahanzturaren aingerua

Maja Haderlap

Idoia Santamaría Urkaregiren itzulpena

Kondagintza, 51

978-84-9172-447-6

2025 - 250 or. - 15 x 21,5 cm

22,00 €

Austria hegoaldean gaude, Jugoslavia zenaren muga-mugan, eslovenieraz hitz egiten duen eta alemanez hozta-hozta moldatzen den landa-ingurunekeo komunitate batean.

Emakume batena da ahots nagusia: neskato bat aurrena, neska gazte gero, eta emakume azkenik. Ahots aztoragarri eta aldi berean poetikoa da berea.

Giro hotzean, nazien aurka arituko diren aita eta aitona, Ravensbrückeko kontzentrazio-esparruan atxilo egondako amona eta errealitateari ihesi egin nahi dion ama. Basoak, heroi anonimoak, salatariak, mugak, eguneroko bizitza eta heriotza.



Maja Haderlap (*Eisenkappel-Vellach, Austria, 1961*)

Eslovenieraz eta alemanieraz idazten du, eta gaur egungo Europako idazle handienetakoa da. Dramaturgia eta germanistika ikasketak egin zituen Vienako Unibertsitatean, eta Klagenfurteko Unibertsitateko Literatura Konparatuko Institutuan irakatsi zuen; hiri horretan, udal antzokiaren zuzendaria izan zen 1992 eta 2007 artean. *Ahanzturaren aingerua* (Ingeborg Bachmann eta Rauriser sariak eskuratu zituen) hizkuntza askotara itzuli da eta kritika sutsuak jaso ditu.



Idoia Santamaría Urkaregi (*Donostia, 1962*)

Euskal Filologian lizentziaduna, itzulpengintzan dihardu 1980ko hamarkadaren amaieratik. Batik bat alemanetik, ingelesetik eta frantsesetik itzultzen du euskara. 2020ko Itzulpengintzako Euskadi Saria irabazi zuen Ingeborg Bachmannen *Aldibereko* itzultzeagatik.

